



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2018-01-17

BILERA ZENBAKIA: 45

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Lau neska eta mutil bat

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Azkeneko aktaren onarpena
2. Etxeko lanak
3. 2018ra begira antolaketa

#### 1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA

Ez dago ekarpenik eta onartuta geratzen da.

#### 2. ETXEKO LANAK

- **INDARLKERIA MATXISTAREN BALIABIDE GIDA.**

Datorren lantalderako laburpena egingo da.

#### **BERDINTASUN ETA ESKOLAREN INGURUKO KOORDINAZIOA .**

Berdintasunaren inguruan 2018ko ekintzen proposamen bat luzatu da. Aurrerago sakonduko da horretan.

#### **DATORREN URTEKO GAIK PENTSATU.**

Datorren urterako gai ugari landu beharrean gai bakarra hartu eta horretan sakontzea planteatu da, planteamenduari koherentzia bat ematen baitio honek.

2018an lantzeko gaia **GENERO BERDINTASUNA ETA PAREKIDETASUNA IZATEA PLANTEATU DA**, eta, proposamen garatu bat planteatu da. Proposamenaren helburua, herrian dauden eragileekin batera, berdintasunaren inguruko ekintzak aurrera eramatea da, sentsibilizazioa bultzatuz eta sarea sortuz.

Proposamenak honelako atalak lantzen ditu:



- Datorren urterako egutegia berdintasunaren ingurukoa izatea, honetarako 12 argazki egitea berdintasunarekin lotuta, herriko 12 elkarteekin batera.
- Herriko eragile ezberdinekin ekintza ezberdinak planteatzea Eskola, jubilatua, elkarte, haur eskola, euskara taldea, ile apaindegia.

### **Eskola:**

- Koordinazio bat bultzatu eskola, guraso eskola eta Ongizate Lantaldearen artean. Eskolan berdintasuna lantzen dute. Beraz haserako koordinazioa egin, landuko dutenaren berri izan eta elkar lan bat bideratzea planteatzen da.
- Koordinazio honen ondorioz, egutegi bateratu eratu daiteke eskola, guraso eskola eta ongizate lan-taldearena.
- Sexune: Berdintasunaren alorrean zerbitzu eskaintza duen proiektua. Haur, familia eta herritarrei zuzendutako hainbat ekintza planteatzen dituzte (ipuin kontalariak, monologoak, tertuliak, etab) katalogo bat dute. Katalogoko zerbitzuak aztertu eta baliagarri ote diren begiratu da.

### **Elkarte:**

- Sukaldaritza tailerra egitea planteatzen da Goierri mailako emakume sukaldariek edo historian egon direnekin. Emakume hauei momentu bat dedikatzeko eta berdintasun ikuspegitik gai honen baitan elkartzeko erabil daiteke ekintza. Era ludikoan egingo litzake.
- Goierriko emakume sukaldari batzuk aipatu dira, baita gizonezkoak ere.
- Sukaldariek sukaldaritza erakusketa bat egingo lukete, zerbait arina, eta, azkarra, jendea erakartzeko. Horrez gain sukadarien argazkiak eta biografia txiki bat baliatuz erakusketa egingo litzake.

### **Haur eskola:**

- Opari ez sexisten inguruko kanpaina bat egin gabonen aurretik guraso elkarte, haur eskolako irakasle, eta, eskolako irakasleekin elkarlanean. Helburuak:
  - Dauden aukeren berri ematea.
  - Berdintasunaren betaurrekoak jartzen laguntzea opariak erosteko garaian.
  - Opari sexisten inguruko hausnarketa egitea
  - Ze balore transmititzen dituzten jostailuek detektatzen ikastea



### **Euskara taldea:**

- Mintza lagun egitasmorako berdintasunarekin lotutako esaldiak erabili baliabide moduan.
- Esaldiak era grafikoan eta sormena erabiliz landu, eta, herrian zehar jarri.

### **Aldizkaria:**

Urteko 3 aldizkarietan berdintasunaren inguruko artikulua idatzi.

### **Gizon taldea:**

Herrian gizon talde bat sortu, gizonek maskulinitate ereduaren inguruan hausnartzeko espazioa. litzake.

Topagune bat sortu:

Gizon talde eta emakume taldeen topaketa bat antolatu herrian. Goiz batean elkartu, eta, lan taldeak eratu gai ezberdinen inguruko hausnarketak burutzeko. Bukaeran esperientziak elkar banatu eta ekintza posibleak planteatu. Ume zaintza jarri.

Topagunea eratzeak lan asko suposatzen du, eta, egitea erabakitzen bada aurrez jendearen konpromisoa aurreikustea egoki litzakeela aipatu da.

### **Murala:**

Berdintasuna gaitzat hartuta mural txukun bat eitea planteatu da.

## **4 2018KO ANTOLAKETA.**


Ondoreko koadroan agertzen da 2018rako planteatuko ekintzak eta egitekoak.

<b>OTSAILA</b>	<b>Egutegia:</b> gaiak eta argazkiak nolakoak izan daitezkeen pentsatu.  <b>Eskola:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Koordinazioa aurrera eraman. Zer egin nahi den eta nola egin nahi den konkretatu. Otsailak 14an ongizate bilerara gonbidatu.</li><li>• Sexumeren planteamentua aztertu.</li></ul>
----------------	---



	<p><b>Mintza laguna:</b> Jakin zenbat lagun dauden.</p> <p><b>Martxoak 8:</b> Bertso saiorako gaiak prestatu.</p>
<b>MARTXOA</b>	<p><b>Mintzalaguna:</b> Pentsatu ea esaldiak lantzeko aukera baden.</p> <p><b>Topagunea:</b> Pentsatu ea posible den. Dinamizatu nahi duen norbait bilatu talde motorraz kanpo.</p>
<b>APIRILA</b>	<p><b>Topagunea:</b> Aurrera egitea erabakiz gero topagunearen diseinua landu.</p> <p><b>Gimnasioaren</b> ideia landu.</p>
<b>MAIATZA</b>	
<b>EKAINA</b>	<p>Muralak txukundu. Berriak egin aurrekontua baldin badago. Ekainak 20, errefuxiatuen eguna gogoratuz mural bat jarri plazan, iazko argazki bat aprobetxatuz</p> <p>Uztailean pelikula bat jartzeko aukera aztertu, posible bada antolatu. .</p> <p>Harrera eguna: maiatzaren 29an Jose Luisi esan errolda bidaltzeko, eta, antolaketa lanak burutu.</p>
<b>UZTAILA</b>	<b>Festen</b> inguruan hitz egin.
<b>IRAILA</b>	<b>Festen</b> inguruan hitz egin.
<b>URRIA</b>	<p><b>Jolas sexistarik ez</b> katalogoa landu</p> <p><b>Topaketa Gastronomiko</b> pentsatu   elokadura landu</p>
<b>AZAROA</b>	

<b>ETXEKO- LANAK</b>	<b>NOIZKO?</b>	<b>ZEINEK?</b>
Bertso saiorako gaiak	Otsailak 14	DENOK



Egutegiko argazkietan pentsatu	Otsailak 14	DENOK
Sexumeren katalogoa	Otsailak 14	MAIDER
Mintza lagunen dagoen lagun kopurua konkretatu	Otsailak 14	JABI
Eskolarekin koordinazioa. Irakasleekin hitz egin	Otsailak 14	G. LANGILEA
Guraso elkartearekin koordinazioa.	Otsailak 14	ERKUDEN
Jostailu ez sexisten katalogoa	Urria	MAIDER RUTH

## HURRENGO BILERA

**Hurrengo bilera, 2018ko Otsailaren 14an egingo dugu, asteazkena arratsaldeko 7tan Udaletxean.**

Gai ordena:

- Aurreko aktaren onarpena
- Eskola eta guraso elkartearekin koordinazioa
- Etxeko lanen errepassoa
- Egutegia: gaiak eta argazkiak nolakoak izan daitezkeen pentsatu
- Mintza laguna: zenbat lagun dauden konkretatu
- Martxoak 8rako bertso saioko gaiak jorratu
- Besteak